

Astekaria

BARREN

elgoi



LANGILEEN EGUNA
KRISIAREN ITZALPEAN

*Banco Vasconia, elgoibartarra sentituz, zure esanetara daukazu.
Gure zerbitzua, banakakoa eta pertsonalizatua da. Ez orokorra.
Zure etorkizuneko nahiak, proiektuak, soluzioak...*

Errosario 33, Elgoibar. Tel. 74 05 62-74 05 66



BANCO DE VASCONIA

- 3 LAU HANKATAN**
"Telebistan minutu bat agertzea ei da famaren giltza". **Hasier Etxeberria**
- 6 ERREPORTAIA:** IRTENBIDE ZAILA SEKTORE INDUSTRIALARENTZAT
Sektore industrialaren etorkizunak erronka gogorra dauka, murgilduta dagoen egoera beltzetik atera nahi badu.
- 8 ARRAZOIAK ERDIBANA:** ELKARTE ANONIMOAK ALA KOOPERATIBAK?
Pedro M. Irure: "Argitu beharra dago "Sociedad Anonima" bezala eza-gutzen direnen artean, beste era batetako erakundeak sartzen direla."
Anton Bergara: "Aipatu behar dudan kooperatiba sistema, Arrasate-ko kooperatiben esperientziari dagokio."
- 12 BERBETAN**
"Lapitza hartu nuenerako marrazteari ekin nion". **Julen Zabaleta.**
- 14 KIROLA:**
GAIA: JAVIER ARRIOLA HARRIJASOTZAILEA 2. EUSKADIKO TXAPELKETAN
ELKARRIZKETA: **Jesus Larrañaga:** Gipuzkoako Duathloi txapelduna
- 16 ELKARTEETATIK BUELTAN**
ZUBI-ONDO: XAKEA ETA JAN-EDANAREN KONBINAZIOA
- 17 KULTURA**
MIKEL HERNANDEZ: ASKORENTZAT EZEZAGUNA DEN IDAZLE ELGOIBARTARRA

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 1, larunbata: **ETXEBERRIA**
- 2, igandea: **ETXEBERRIA**
- 3, astelehena: **ORMAZABAL**
- 4, asteartea: **ORMAZABAL**
- 5, asteazkena: **ORMAZABAL**
- 6, osteguna: **ORMAZABAL**

7, ostirala: **YUDEGO**

OKINDEGIAK:

- 1, larunbata: **ZABALETA**
- 2, igandea: **EIZAGIRRE**



PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emailen elkarte	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia	743525
Musika Eskola	742145
Polikiroldegia	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola	74 08 79
I.M.H.	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola	74 27 00
L.H.I.	74 31 00
Pilar Ikastetxea	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Agur Miren Barandiaran, Lorea Gorostiaga, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, German Meababasterretxea, Susana Mugika, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Segundo Raigoso, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta, Javier Zarzuelo.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Famaren lana

Telebistan minutu bat agertzea ei da famaren giltza.

Jasoko duzu katedrale bat, idatziko dituzu mila liburu, izango zara pertsona on eta zintzoa, igoko dituzu mendiak, jaitziko leizeak... baina telebistan agertzen ez bazara, ez zaitu zure amak baizik ezagutuko.

Ni neu ere, zortzi urteko ume moko bat nintzela agertu nintzen lehendabizikotz telebistan. Elgoibarren autobus bat hartu eta Lasartera ginen joanak Krossa ikustera. Pertsona haundien lepoen gainetik, han urruti, Lasartereko zelai bustietan, Abebe Bikila ikusi nuen, korrika nekatutako tximista beltz bat bezala. Herrira itzultzean berehala esan zidaten senitartekoek telebistako zirubeltzean ikusi zutela nere aurpegia, une motz batean.

Garai haietan ez zen bideo magnetoskopiorik eta ezin izan nuen ikusi neronen burua. Ezin nuen jakin nolakoa nintzen kanpotik begiratuta. Beti eman dit pena. Argazkiak arimaren zati bat lapurtutako indioa bezalaxe sentitu nintzen. Nere zati bat ohostu balidate bezala.

Harrez gero, minutuak eta orduak agertu izan naiz telebista monitoreetan. Tankera eta modu guztietan. Pelikula batean ere irten nintzen minutu luzeegi batean. Famatua omen naiz, beraz.

Behin batean, nere famaren buztona Madrileraino iritsi zen eta urrezko sari bat eman zidaten han, *Martes y Trece* deitzen diren bi txotxoloren alboan. Beste batean amama batek agurtu ninduen kalean. Haur batek pegatinak eskatu zizkidan. Beste batek ez dakit zer ikusteko sarrerak eta nere lagun batek zinta zahar baten kopia ekartzeko. Baina, batz bestea, fama ez da ezer. Zerbait izatekotan banidadea zerrautsez betetzen duen zerbait da, baina batez ere traba bat. Pisu haundiz kargatutako alferrikako motxila bat.

Hala ere, egun batean etorri zitzaidan nere fama ustiatzeko aukera. Madrilgo aldizkari gastronomiko garrantzitsuenak, nere lankidetzari nahi zuen. Ederki ordaindu behar zidaten. Elkarrizketa luze bat egin behar nion Euskal Herriko famaturen bati. Txillidari edo. 60.000 pezeta inguru ordainduko zidaten. Zelako amama erdi dohain idazten ohituta gaudenontzat!

Baina Txillidak ezin zuen. Beste izen batzuk botatzen hasi nintzen orduan. Oteiza, Atxaga... baina, ¿Y esos, quienes coño son? erantzun zidan erredaktore buruak. Nadie, nadie-esan nion nik- el Principe de Asturias de las Artes y el Premio Nacional de Literatura. Baina berak erabakita zeukan haiek ez zirela famadunak: jamás los he visto en la tele-erantzun zidan. Claro, claro-esan nion nik eta gero, klik, eskegi nuen telefonoa bere lekuan.



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero
OKINDEGIA
OPILDEGIA

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Txirrindulariak nondik?

Udara gainean dugula eta, jakina da txirringa edo bizikletak kaleratuko ditugula. Asmo hori duzuenok eta, bereziki umeen guraso eta arduradunei eskaera hau egin nahi genizueke:

Ibilgailuak direnez, motorrik gabekoak badira ere, trafiko seinaleak eta **norabide debekatua adierazten dutenak, gehienbat, errespeta ditzazuela**, arren.

Ataritik ateratzekoan, ez dugu, inor etorri behar ez litzakeen kale aldera begiratzeko ohi-

turarik, eta asegurorik ez badaukagu... berandu izango da damutzeko.

Oinezkoak eta errepidea

Denok ezagutzen dugu gure herritik pasatzen den errepidea gurutzatzean istripua izan duen norbait edota zenbat istripu gertatu den errepide horretan. Oinezkoentzat pasabiderik ez zegoenean manifestazioak ere egin genituen beharrezko ziren pasabideen eske.

Urteak pasa dira eta oraindik asko dira 40 metro gutxiago ibiltzeagatik beraien bizia arriskuan jartzen dutenak. Bizia 40 metrotan neur-

tzen dutenak ere badira oraindik eta, ez dago aitzakiarik hori defendatzeko. Gaur egun baditugu oinezkoentzat eraikitako pasabideak eta ez daukagu zertan errepidea zapaldu, ez eta gidariak arazoetan zertan jarri: **ERABIL DITZAGUN BETI PASABIDEAK ETA GURE HAURREK IZANGO DUTE NORENGANDIK IKASI BERANDU IZAN BAINO LEHEN.**

Udaltzaingoa

GOGORATU!

Atal hau zuen esku-titzen zain dago. Kezka, iritzi, galdera, erreflexio... adierazteko aukera ezin hobea daukazue bertan.

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharoko dute. Argitaratzekoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inizialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzentzat.

ELGOIBARKO REM ETA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA



Zer da IEE/REM?

IEE/REM 1go zikloaren informazioa:

HELBURUA: OHOn hasitako maila kulturalari jarraipena ematea da. Horretarako zenbait gaitasun, ohitura eta ekintza garatzen dira hurrengo alorretan:

- Expresioa
- Zientziak
- Gizarte Zientziak
- Teknologia

IRAUPENA: 2 ikasturte

SARTZEKO BALDINTZAK:

- 16 urtetik gorakoa ez izatea.
- OHoko titulua edo OHoko 7.maila gainditua eta 8.a egina edukitzea.



Aste honetako erretratua **Imanol Solupek** lagatakoa da.

Atal honetarako erretratu zaharren eskean ibiltzen bagara, oraingoan benetan zaharra ekarri digute.

Erretratua 1912. urtean Teodoro Alkortaren tailarrean ateratakoa omen da.

Tailarrean zer egiten zuten jakiterik izan ez badugu ere, zerbait zikina zela begibistan da. Beste detailtxo bat: ohartu al zarete orduko tailarretan haur, gazte, heldu eta nagusiek berdin berdin lan egiten zutela? Ez zegoen orduan egungo krisiaren

arrastorik!

Izen guztiak aurkitzea ezinezkoa izan bazaigu ere, ikus dezagun zeintzuk diren langile fin hauetarikoz batzuk:

Zutik ezkerretik eskuinera: (...), **Ballibar sople-tista** (Agote), **Maurizio Solupe**, **Silvestre Ziaran**, **Migel Ajubita**, **Dionisio Solupe**, **Katxo** (Banda-kuaren aitxitxa), (...), (...), **Eusebio Unzueta**, (...), (...), **Vicente Alberdi "Patxillo"**, **Roman "Kartutxo"**.

Eserita: (...), (...), (...), **Leonardo "Debatxo"**, **Federiko Solupe**, (...), (...).



Irtenbide zaila sektore industrialarentzat

Krisiak gogor eragin ditu ekonomiaren sektore guztiak, baina denen artetik, industriaren sektorea izan da, dudarik gabe, gehien sufritu duena. Sindikatuek, egoeraren larria dela eta, manifestazio eta ekintza ugari prestatu dituzte aurtengo maiatzaren 1.a ospatzeko.

Datozen lerro eta datuen bidez Elgoibarko ekonomiaren egoeraren berri ematen saiatuko gara.

Elgoibarko industriaren zutabe nagusia denak, makina herramintak, 500 lanpostu inguru galdu ditu azken sei urteotan. Halaber, josteko makinaren alorrean ia lanpostu guztiak desagertu dira.

Beste iharduera industrial batzuk, ordea, hasi egin dira, enpresa kopurua ugalduz joan den heinean. Duela sei urte 74

enpresa zeuden Elgoibarren eta 1992. urtean, berriz, 118.

Guztira, 1000 lanpostu baino gehiago galdu ditu gure herriko industriak. Zerbitzuen atalari dagokionez, Elgoibarren ez da gizarte aurreratu bati dagokion zerbitzuen sektorea garatu. Dena den, 1992. urtean 407 enpresa ari ziren zerbitzuen ihardueran.

Bestetik, langabetuen kopurua igo egin da azken hilabeteen INEMeko datuen arabera. Halere



↳ Krisiak oso gogor astindu du

datu hauek ez dute egiazko egoera isladatzen, kontutan hartuta lanik gabe dauden guztiak ez direla INEMeko zerrendatan apuntatzen. Gainera, herrian lanik aurkitu ezinik kanpora lan bila

LANPOSTU KOPURUA INDUSTRI IHARDUERETAN

DESKRIPZIOA	1986	1992
Herraminta Makina	1.836	1.398
Josteko makinak	519	78
M.H.rako akzesorioak	234	236
Rodamentuak	227	199
Forja	120	124
Metal tratamendua	88	71
Mekanika orokorra	87*	105
Egurra	65	59
Gainontzekoak	368	476
GUZTIRA	3.544	2.687

ITURRIA: DEBEGESA

* 1987ko datua


Elgoibarko industriaren egoera

“Duela bi urtetik krisian murgilduta gaude. Espainiar ekonomia irekiagoa da lehen baino eta atzerritik kompetentzia handia dago. Egungo krisia, hemen sekula egon den krisirik gogorrena da, makina-herramintan behintzat. Inbertsiorik ez dago eta inbertsiorik gabe makina-herramintak ezin du aurrera egin. Gure produktibitatea kanpoko enpresena baino baxuagoa da eta gainera, enpresek banketxeen kreditu gehiegi erabiltzen dute beraien finantzamendurako. Dirua garestiagoa da

hemen kanpoan baino eta, noski, gehiago kostatzen da dirua irabaztea.

Beste puntu garrantzitsu bat formazioarena da. Oso zaila da FP2 edo maestro industrialala baino ikasketa gutxiago dutenek lanik topatzea. Eta oso gogorra bada ere, formaziorik gabeko 40 urtetik gorakoek ezingo dute lanik aurkitu makina herramintan. Lan ez kualifikatua gero eta gutxiago egongo da.

Egoera honek horrela iraungo du enpresak gogortzen ez diren arte. Eta enpresak gogortzeko neu-



makina herramintaren sektioera.

alde egin dutenen kopurua gehitu behar zaie INEMen datuei.

Alboko taulako datuek azken boladan industriak sufritu duen beheranzko joera baieztatzen dute. Makina-

herramintaren etorkizunak eta, orokorrean, sektore industrialaren etorkizunak erronka gogorra dauka murgilduta dagoen egoera beltzetik aterata nahi badu, behintzat.

LANGILE KOPURUA 1986-1992

ENPRESA	1986	1992	Diferentzia
Sigma	669	234	-435
Danobat	509	449	-60
Rodisa	227	199	-28
Lagun	180	147	-33
Etxetar	127	120	-7
Alkor. Unzue.Cia	120	128	-8
Geminis	117	113	-4

ITURRIA: DEBEGESA

LANGABEZIA 1992KO OTSAILEAN


HERRIA	30 URTETIK BEHERAKO-	30 URTETIK GORAKOAK	LANGABETUAK GUZTIRA
Elgoibar	Ema. 227 Giz. 148	Ema. 213 Giz. 150	738
Mendaro	Ema. 19 Giz. 18	Ema. 22 Giz. 16	75
DEBA BEHEA	Ema. 1085 Giz. 747	Ema. 1110 Giz. 1002	3904

ITURRIA: INEM

Karmelo Urdangarinen ahotik

riak hartu behar dira. Nik uste dut, aldaketa sakonak gertatuko direla, eta onerako gainera. Baina lanpostuek behera egingo dute. Egoera berri batetan ez litzateke posible orain dauden lanpostu guztiak mantentzea. Zeintzuk hartu behar dituzte neurri hauek? Enpresek beraiek. Jaurlaritzak laguntasuna eman dezake baina krisitik makal irteten den enpresa hurrengo krisian ere erori egingo da. Elgoibarko SIGMA enpresak, esaterako, behea jo du eta konponketa txikiak egiten ari

dira nola hala jarraitzeko. Behar ziren neurriak ez ziren bere garaian hartu eta orain hartu dituztenak ere ez dira behar adinakoak. Zeintzu dira hartu beharreko neurriak? Nik uste ez direla oraindik neurri hauek hartu. Makina-herramintaren sektorean bi edo hiru "grupo" handi egiten badira, langile gutxixegorekin, etorkizuna egongo da. Enpresak txikiak dira eta atzerriko enpresek Espainiako merkatuaren parte bat harrapatu dute. Hori konpentsatzeko kanpoan saldu behar da



➔ Karmelo Urdangarin, ekonomi analista.

eta kanpoan saltzeko enpresak handiagoak izan behar dira, finantzamendu aldetik gogorragoak. Teknologia alorrean geuk ikeritu eta sortu behar dugu eta horretarako, eta denerako, neurriak hartu behar dira. Enpresa handiak sortuta etorkizuna egongo da. Momentu honetan "grupo" bat sortzeko mugimendu handia dagoela esango nuke eta baliteke hortik zerbait ateratzea."

Elkarte Anonimoa ala kooperatiba?

Lehenik, argitu beharra dago "Sociedad Anonima" bezala ezagutzen diren hauen artean, beste era batetako erakundeak sartzen direla, hala nola, Erantzunkizun mugatukoak (Responsabilidad limitada) eta Comanditarias direlakoak, baina erabat kanporatuak utzi behar genituzke Sozietate Anonimo laboralak.



Guzti hauek, badituzte abantaila eta desabantailak eta hauen aukeraketa, sortzerakoan bakoitzak dituen helburu, baliabide eta fiskalizatze eran datza.

1989ko Abenduaren 22ko azken merkatal erreformaren aurretik, garrantzi handiko abantaila zegoen Sozietate Anonimoetan eta berau, hartzekodunei, akzionistek jarritako kapitalaz erantzutea zen. Gaur egun, sozial zorrei pertsonalki egin behar diete aurre.

Halere, badira oraindik nabarmentzen diren ezaugarri interesgarri batzu. Nire ikuspuntutik, bi puntu garrantzitsu dira, zeintzutan Sozietate Anonimoak oinarritzen diren: akzionistaren anonimatoa eta horren kudeatze organuen osaketa.

Akzionistaren anonimatoa honetan datza:

- Ez da beharrezko loturarik kapitalaren aportazioa eta beste lan edota merkatal erlazioekin.

- Akzioak orohar trukaketa librekoak dira. Gauzak gaizki joanez gero edo beste arrazoiengatik, finantzieroak kasu, nire parte saltzea interesa dakidake eta aisago lor dezaket beste soziedadeetan baino.

Kudeatze organuek bi ezaugarri zehatz dituzte:

- Lehenik, legez egitura demokratiko proportzionalen barruan daude, hau da, akzio bakoitza boto bat da eta gehiago daukanak, gehiago arriskatzen du eta era berean, podere gehiago izan nahi du eta noski, lortzen du.

- Bigarrenik, Administrazio kontseiluak, bere kon-tseilariak, enpresaren norabideaz erantzuten dute akzionisten bilkura orokorrean. Jeneralki ez dituzte funtzio ejekutiboak betetzen, izan ere, funtzio hauek "ejekutiboek", hots, lan-merkatuko profesionalak egingo dituzte. Zeintzu, enpresak bere helburu eta emaitzen baldintzapean kontratatuko ditu ejekutiboak.

Hemen abantailak bezala jarri ditudanak, desabantaila bihur litezke. Eskarmentu latzak badira zentzu honetan eta noski, guzti hau kontrol taldeek beraien botuek emandako eskubidea erabiltzean datza. Nire komentarioa, abantail hauek esparru teorikoan begiztatzea mugatu da, "Sociedad anonima" normaletan ematen dena.

Pedro Maria Irure
E.Y.E. S.A.-ko Presidentea
(Erredakzioan itzulia)



Aipatu behar dudako kooperatiba sistema, Arrasateko kooperatiben esperientziari dagokio, gaur egun Mandragon Corporación Cooperatiba, MCC, izenekoa. Bere baitan 3 talde nagusi biltzen ditu:

- Talde Finantzieroa (Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Lagun Aro...)

- Banaketa Taldea (Eroski...)

- Talde Industriala (Fagor, Danobat...)

Talde Industrialetan 80 enpresa daude, 92. urtean 204.000 milioi pezeta saldu eta 15.335 lanpostu mantentzen zituztenak.

Gure sistemaren oinarritzko printzipioei dagokionean, honako hauek aipatuko nituzke:

***Antolaketa demokratikoa**, ezaugarri hauekin:

- Batzarre Orokorren subiranotasuna, "gizon bat, botu bat" praktika gauzatuz.

- Gobernu organuen hautaketa demokratikoa.

- Elkartea gestionatzeko izendaturiko zuzendari organuekiko kolaborazioa.

***Lanaren subiranotasuna**: sortutako irabazien edo etekinen banaketarako irizpidea lana da.

***Gestioan parte hartzea**: honek enpresaren eboluzioaren informazio egokia eta parte hartzeko aukera eta mekanismo egokiak dakartza.

Gaurdaino, sistema honek garatze ahalmena

erakutsi du eta, horrela, azken 20 urteotan Euskal Herrian 150.000 lanpostu galdu diren bitartean, 380.000 lanpostutik 230.000ra jeitsiz, **MCCko Talde Industriala**, 10.000 lanpostu edukizetik 15.000 izatera pasa da.

Gainontzeko enpresen batz bestekoa baino gestio hobea. Taldearen enpresa eta diru babesa eta sortutako irabazi guztien berrinbertsioa dira, nere ustetan, bilakaera hobeagoaren hiru arrazoiak.

Hala ere, egungo egoerak eta etorkizunak, enpresa industrial guztien iraupena kinka larrian azaltzen dizkigute, kooperatiba izan ala ez. Horregatik, gu berrantolatzen ari gara erronka berri eta zailei erantzuna eman nahian. Berrantolaketa hau enpresen elkarlan handiagoan oinarritzen da sektore bereko enpresak taldekatuz eta iraganean baino ekonomi eta enpresa lokarri estuagoak jarriaz.

Anton Etxeberria
Danobat Taldeko
Zuzendari Orokorra
(Erredakzioan itzulia)

ETA ZURE USTEEZ?

Elkarte Anonimoa ala kooperatiba?



Iñaki Aurrekoetxea
46 urte, informatikoa

Teorian kooperatiban lanean dagoenak enpresan parte hartzen du. Soziedade anonimoan, ordea, ez. Baina praktikan, kooperatiba handiek ia soziedade bailiran funtzionatzen dute.



Zorione Sagasta
36 urte, administratiboa

Kooperatibaren pentsamendua beste modu batekoa da. Ez du ardura izaten lan gehiago dagoenean ordu gehiago sartzea. Gainera, ekonomikoki aurrera egiteko laguntza handia dute.



Antonio Garrido
45 urte, kristaleroa

Kooperatibari beste irtenbide bat ikusten diot. Lanik ez badago elkarren artean laguntzen dira. Soziedade anonimoan ez dago horrelakorik.




Abel Irizar
24 urte, komertziala

Ni bietan aritu naiz. Orain oso gustora nago Soziedade Anonimo batean. Biek dituzte beren abantailak eta desabantailak, aplikatzen jakin behar... Enpresa bakoitza mundu bat da.



Amaia Ansola
39 urte, etxekoandrea

Kooperatiba hobe izango dala uste dot. Kooperatiba batetan taldeko lana dago eta gauzak dauden bezela egonda irtenbide gehiago ikusten diot.



Jose Ignacio Jauregi
40 urte, administratiboa

Helburuaren arabera bata ala bestea hobe. Hasiera batetan lana sortzea nahi bada, kooperatiba. Irabaziak lortu eta luzera begira lana sortu nahi bada, soziedade anonimoa.

Maiatzak 1
Deba beheko **MANIFESTALDIA**
12etan Eibarko Unzaga Plazan

LAB

langile abertzaleen batzordeak

Elgoibar San Inazio 1 tel. 74 38 86
Eibar: Bidebarrieta 24. Tel. 11 21 99

Eskulanean saiatzen gara

Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

Muruamendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Lizzy Boutique

GAZTEENTZAKO MODA

Errosario, 25 - Telef. 74 23 02

Igandeko euriteak hainbat kalte eragin zituen

Pasa den igandean eta astelehen goizaldean egindako eurijasek kalteak eragin zituzten gure herriko zenbait lekutan. Argazkian ikusten denez, Autonomia kalean (634 errepide nazionalan) duela gutxi eraikitako kontentzio orma behera etorri zen.

Astelehen goizaldean Santa Klarako auzoan, San Pedroko etxeetan, Herminios taberna inguruan eta Alzolan, bonberoen laguntza behar izan

zuten urak eragindako arrisku egoerari aurre egiteko. Lanbide Heziketarako Institutuan igande arratsaldean jausitako tximista batek kalteak eragin zituen zenbait ordenadoretan. Horrez gain, eguraldi txarrak hainbat arazo sortu zituen sare telefonikoan.

Igande gaueko 10ak aldera, ibaia 2 metro gorago zegoen eta goizaldeko 4ak arte 3 metroko altueran mantendu zen.



Elgoibarko azterketa soziolinguistikoaren aurkezpena

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak hitzaldi bat antolatu du Elgoibarko egoera soziolinguistikoaren berri emateko.

Azterketa hau, Udalaren eskariz, SIADECO entpresak egin du eta bertan, besteak beste, euskararen presentzia leku publikoetan, Elgoibarko lantegietan euskarari ematen zaion tratamendua, Udala eta Udal zerbitzuetako euskararen egoera, elkarte mota ezberdinetan ematen den euskararen ezagupena eta erabilera, Elgoibarko herritarrek eus-

karekiko duten iritzia eta jarrerak eta irakaskuntza munduaren egoera, aztertu dira.

Elkartearen nahia Elgoibarko gaur egungo egoera ahalik eta jende gehienak ezagutzea da, egoera zein den jakinik ulergarriagoa izango baita Elkarte eta Udalaren arduraren, gainontzeko agenteen inplikazio zuzenarekin, 94. urtean martxan jarri nahi den normalizazio prozesua.

Ahalik eta jende gehien bildu asmoz, bi saio antolatu ditu Elkarteak: bata,

maiatzaren 6an, arratsaldeko 7etatik 9ak arte; bestea, maiatzaren 8an, goizeko 11etatik 1ak arte, bakoitzak berari hobeto dator-

kion eguna aukeratzeko betarekin. Hitzaldiak Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango dira.



CAFE
PZFF
TEATRO

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

Pinturas Elgoibar

Fermin

● Pinturak
● Enpapelatuak
● Gotelé
● Igeltsuzko dekorazioak
● Lurrak
● Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g
(Anayak etxea)
Tel: 74 39 91

Aiako haitzetara irtenaldia

Larunbat goizerako, maiatzak 1, Aiako haitzetara irtenaldia antolatu du Morkaiko Mendizale Elkartek, abiapuntua Aritxulegi izango delarik. Autobusa larunbatean, goizeko 9etan, aterako da Foruen Plazatik eta prezioa 800 pta bazkideentzat eta besteentzat 1.000 pta izango da.

Bestetik, apirilaren 6an egindako batzar berezian, bazkideen kuota berriak ezartzea erabaki zuen Mendizale elkartek. Gazteen kuota berria, 500 pezetakoa izango da eta nagusiena, berriz, 1000 pezetakoa.

Herri Urratsera autobusak

Aurten ere, urtero bezala, Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek autobusak antolatu ditu Herri Urratsera joateko. Iparaldeko ikastolen aldeko eguna, aurten maiatzaren 9an izango da, Senpereko lakuan. Autobusak goizeko 8,30etan irtengo dira Sigmako zubitik eta izena eman nahi duenak, maiatzaren 7a izango du azkenengo eguna. Autobusaren prezioa 800 pezetakoa izango da.



Ikastolako 5. mailako hiru haur ONCEren lehiaketan sarituak

San Bartolome Ikastolako 5. maila osoak ONCE elkartearen eskola Lehiaketan parte hartu zuen giza-kien arteko elkartasuna eta ikasleen sormena bultzatu nahian. Horrela ba, 5. mailako hiru ikaslek, Izaskun Sarrugartek, Kristina Etxeberriak eta Ane Etxeberriak osatutako taldeak, "ONCErentzako laguntza" izenekoak, Gipuzkoa mailako 9 eta 11 urte bitarteko A kategorian bigarren saria lortu zuten. Argakian, Izaskun, Ane eta Kristina, ONCE sariaren irabazleak.

Errotatxok SIDAren problematika aztertzeke inkesta bat buzoneatu du

Errotatxok eta T-4 (Bilboko HIESAren aurkako borroka eta T-4k eragindakoen autolaguntzarako Elkarte Hiritarrak) SIDAren problematika aztertzeke asmoz, inkesta bat buzoneatu du elgoibarko etxe guztietan. Inkesta honek bi zati ditu: baten, erantzuleak afektatua balitz bezala erantzun beharko du eta, bestean, senitartekoa balitz bezala.

Inkestak bete ondoren horretarako apropos jarriko dituzten buzoietan sartu beharko dira. Buzoiak Caja Laboralean, Errosario kaleko Kutxan eta Fotero okindegian kokatuko dira.

Lourdesera peregrinazioa

Urtero bezala, Lourdesera peregrinazioan joateko deialdia egin da eta izena emateko epea zabalik dago pasa den astetik. Izena, parroko bulegoetan zein Gloria Mugerzak azoka Plazako bigarren solairuan duen loradendan eman daiteke. Lourdesera peregrinazioa maiatzaren 21etik 24era bitartean izango da, biak barne. Dena den, nahi duen guztiak maiatzaren 22an, larunbata, irteteko aukera izango du. Bidaia honetarako inskripzioak lehenago aipatutako lekuetan egingo dira.

Rally farregarria antolatzeko bilera

Aurreko bi urteetan bezala Zuhaitz Aisialdi taldeak "III. Elgoibar City" Rally farregarria antolatzeari ekin dio. Iazko partaidetza eskasa kontutan izanik, Elgoibarko kuadrilla guztiak bilera batera deitu dituzte Rallyari buruz hitzegiteko. Bilerak, maiatzak 1ean izango da Kultur etxeke hitzaldi aretoan, goizeko 11etan.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

NORBERTO ZABALA

PINTURAK

Errosario 32. Tel: 74 08 45.
ELGOIBAR

TINDATEGIA



Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91

"Lapitza hartu nuenerako marrazteari ekin nion".

Eibarren bizi den elgoibartar margolaria dugu Julian Zabaleta. Urte asko daramatza Elgoibartik kanpo baina maiz azaltzen da bere jaioterrira, ez bait ditu bertako kaleak ahaztu. Lan gehienak azkenengo zazpi urteotan egin dituen arren, marrazteko erraztasuna eta joera betidanik izan du. Edonori dohanik marrazkiak egiteko prest dagoela aitortu digu.

-Zenbat urte daramatzazu marrazten? Nola hasi zinen?

-Bizitza guztia daramat marrazten; nere akordu guztian, behintzat. Lapitza hartu nuenerako marrazteari ekin nion. Sei urte nituenean hasi nintzen aitak erosi zidan lapitza eta paperarekin. Eta hori, ez naizela inongo eskolatan ibili. Berez daukadan zerbait izan da. Beti gustatu jata eta gozatu egin dot marrazten.

-Zer duzu gogokoen marrazterako unean?

-Neri gehien paisaiak eta edifizioak marraztea gustatzen jata. Pertsonak, aldiz, ez ditut asko egin.

-Zein materiale erabiltzen duzu?

-Pinturarekin ez dot marrazten ez naizelako ondo moldatzen, nik plumlarekin zein "rotring"arekin marrazten dot, txuri-beltzean.

-Zer nahiago duzu, kopiaketak ala abstrakzioak?

-Nahiago dot kopiatzea. Nik erretratua ateratzen dot eta gero erretratutik marraztu ondoren, neuk jokatzen dot nola ipini detaileak.



"Nere esku egongo balitz, egun osoa jardungo nuke marrazten."

-Eguneko zein momentutan gustatzen zaizu marraztea?

-Gaur egun, ez zait kome-ni marraztea, bistia asko kantsatzen jatalako. Baina, nere esku egongo balitz egun osoa jardungo nuke marrazten, ez bait naiz aspertzen. Gainera, beti daukat zerbait egiteko. Normalki, pare bat edo hiru ordu egiten ditut gutxienez.

-Koadro bat egiteak zenbat denbora eramaten dizu?

-Batzuk, ordu t'erdian egiten ditut eta beste batzuk bost ordutan, kua-droaren arabera izaten da. Baina, gutxienez, bost ordu beharrezkoak izaten dira.

-Familiako inork jarraitu ditu zure pausuak?

-Ez, inork ez. Nere seme gazteenak pentsatzen genuen jarraituko zituela baina ez dauka astirik.

-Margoari eta estiloari dagokionez, norekin geldituko zinateke?

-Surrealistak ezik, beste dena gustatzen jata. Eta batez ere, margolari frantsesak: *Monet, Renoir, Pizarro* e.a. Aipatzekoak dira Elgoibarren dauzkagun bi margolariak ere, *Luziano* eta *Gemma Monreal*. Biak asko gustatzen zaizkit eta oso onak dira.

-Zure ustez, gaur egun bizi daiteke margolaritzatik?

-Gaur egun ezin dala margolaritzatik bizi uste dot.

-Egin al duzu erakusketarik?

-Inoiz ere ez dot erakusketarik ipini. Berez, nere lanak erakustea gustatzen jata baina ez dot esposizio-rik antolatu nahi, horrela lan gehiago izango nukeelako. Nire lanak, normalean, *Anton* altzari dendan egon dira ikusgai, eta saldu ere saldu dira.

-Zein izan da zure azken lana?

-Orain egin dot dotrina erakusten dabenentzat San Bartolome elizako dorrea pergaminozko paper batean, diploma batzuk eman behar bait dituzte.

Maite Iriondo

Mari Jose Olivares

Abokatua



-Txikitatik nahi zenuen izan abokatua? - Ez. Ez da gaztetatik naukan bokazioa. Gero, karrera aukeratzekoan.

- Egia al da zuzenbide ikasketak hain gogorrek direla? - Organizatzen bazara eta otsailean partzialak aprobaten badituzu, beste karrera bat bezalakoa da.

- Gatazkatsuak gara Elgoibarren? - Ezetz uste dut.

- Euskara marginala da auzietan? - Zeharo marginala. Poliki poliki hobetzen doa, baina oraindik, interpretea eraman behar da, akusatuak euskaraz hitzegin nahi badu.

- "Deabruaren abokatua"rena egin al duzu inoiz? - Bai, bazuetan.

- Auzia hasi baino lehen, ba al dago galdutako kasurik?

- Bai, zenbait kasutan egin dezakezun bakarra zigorra jeistea da.

- Abokatuak, lan-talde serioena zarete? - Bai (buruarekin ere baieztatuz).

- Euskal Herrian, emakume asko zaudete lan honetara dedi-
katuak? - Asko gaude, bai.

- Zein kasu famatu eramatea gustatuko litzaizuke? - Koltza olioarena, adibidez.

- Zure ustetan, zein da euskaldunon delitorik handiena?

- Alkolaren menpe gidatzea, diferentzia askorekin.

- Zer diozu esaldi honetaz? "Legea egin zuenak, tranpa ere egin zuen". - Egia dela.

- Burukomin asko ematen al dizu lanbide honek? - Nahi baino gehiago.

- Zer liburu mota irakurtzen duzu gauetan? - Nobelak.

Myriam Aldazabal

BERTSOTAN

**ELGOIBARKO
LAN EGOERA**

Doinua: Betroiarena

"Barearen ostean badator ekaitza" esaerak hala dio, hor dago emaitza. Elgoibarren sartu da lan- ezaren gaitza Nork ote dauka hori konpontzeko giltza? Diruak du hitza, etekin murrizta, latza da bizitza Ametsa balitza... Europa berri hontan hola gabilta. (bis)

Abel Irizar

Kide
ileapaindegia

☎ 74 00 69

San Frantzisko, 40-1 ez.

TxiRiBOGa
Taberna

GOSARIAK, PINTXOAK

ETA OTARTEKOAK

Plaza merkatua 23-24

Kantabria
Jatetxea

Tel: 12 12 62 ARRATE-EIBAR

- ♠ Ezkontzak
- ♠ Bataioak
- ♠ Bazkariak
- ♠ Despedidak

TENISA

Datorren maiatzak 8an, larunbata, joku eskolarren barruan 9 urtetik 13 urte bitarteko haurren arteko tenis txapelketa hasiko da. Tenis partiduak larunbat arratsaldetan jokatuko dira Udal Tenis pistan.

TXIRRINDULARITZA

Bigarren urteko kadeteen kategoriako "IX. G.P. Santa Cruz" lasterketan *Muebles Olatz* taldeko Alex Galarraga bigarren heldu zen helmugara 1h.38m. eta 48 segunduko denborarekin. Gainontzeko txirrindulariek minutu bat beranduago zeharkatu zuten helmuga.

Lehen urteko kadeteetan "Usurbilgo Txirrindulari Elkarte" lasterketan Orkatz Amutxastegi izan zen helmugaratu zen lehen elgoibartarra, irabazleak egin zuen denbora berberaz.

PILOTA

Hilaren 5ean hasiko da Pilota Eskola Lagunak antolatuta, "Elgoibarko III. Trinidad txapelketa" alebin eta benjaminen kategorietan. Elgoibarko eta Mendaroko 50 pelotarik hartuko du parte uztailearen 15 arte jokatuko diren 70 partiduetan.

Egunero hiruzpalau partidu jokatuko dira eta hasiera ordua arratsaldeko 5 t'erdia inguruan izango da. Astelehen eta asteazkenetan plazako frontoian izango dira partiduok eta astearte eta ostegunetan Ikastolako frontoian.



Jesus Larrañaga mendarotarra Gipuzkoako Duathloi txapelkun

-Pozik al zaude lortutako tituluarekin? -Bai, noski. Egindako esfortzua konpentsazio bat da. Pozgarria da horrelako titulu bat lortzea.

-Zer iruditu zitzaizun Elgoibarko Duathloia? -Aurreko urtetik egin naukan Elgoibarko lasterketa eta ingurua ezagutzen dut. Antolakuntza aldetik aurreko urtekoa baino hobea iruditu zait.

-Nola moldatu zinen eguraldi txarra zela eta? -Bueno, pasa den urteko errekorra puskatzeagatik sari bat zegoen eta lehenengo bost postuetan sartu ginenok jeitsi egin genuen denbora hori. Euriarekin txirrinduan askoz motelago zoazela kontutan izanda, maila altua egon zela uste dut.

-Lortutakoaz gain, beste postu edo titulu aipagarririk? -1988. ean bigarren postu bat lortu nuen Reinosako negu Triathloi batean. Nahiko entzuna izan zen, garai hartan txirrindulari profesionalak ibili baitziren mundu horretan. Beharbada inportanteenetariko horixe izango da. Lekeitioko Triathloia II. edizioan ere irabazle izan nintzen eta, Donostian ere Duathloi bat irabazi nuen...Garaipen batzuk badituz, baina denetariko



postuak egin dituzt.

-"Iron-man" kontsideratzen al zara? -Ez. Keba! Iron-man izena hartzen duen Triathloiarik korritu behar duen lasterketa Hawaii du jatorria baina gaur egun distantzia horretako beste Triathloi batzuk ere egiten dira. Lasterketa oso luzea eta gogorra da eta gainera Hawaira joateko sponsorizazioa behar da. Profesional mailan apenas inor ibiliko den.

-Kirol bakar batetan aritzea pentsatu al duzu? -Elgoibarko "Cafes Aitona" bizikleta ekipoa ibili nintzen eta hura uztean hasi nintzen Triathloian. Nahiko berandu, beraz. Beste kiroletarako heldutxoegia zarenean Triathloiak ematen dizu kirola egiteko aukera.

● Adina: 32

● Bizikleta ala korrika? Biak.

● Neguko ala Udako Triathloia? Biak, baina bat aukeratzekotan, negukoa.

● Kirolaren alderik gogorrena? Ez du.

● Kirola zertarako? Norberaren buruarekin hobeto sentitzeko.



-Jaunartze opariak

-Camping eta hondartzarako altzariak

P. Muguruza, 8. Tel. 741642

GORRÓN

dekorazioa


San Bartolome, 21 -tel. 74 01 91- 20870 Elgoibar

Javier Arriola harrijasotzaile elgoibartarra, bigarren Euskadiko txapelketan

Javier Arriola 19 urteko harrijasotzaile gazteak pasa den hilaren 25ean Asteasun ospatu zen kategoria absolutuko Euskadiko txapelketan bigarren postua eskuratu zuen "Zelai" lehen mailako Euskadiko harrijasotzaileen txapeldunaren atzetik. Saioan zehar, 100 kiloko hiru harri jaso zituzten, hiru minutuz bakoitza. San Pedro auzoko harrijasotzaile elgoibartarrak 75 jasoaldi egin zituen guztira eta 10 harrijasotzailereren artetik "Zelai" bakarrik aurreratu zitzaion.

Gaztetasuna bere fabore

Javier Arriola, "Egi" baserrikoa, duela hiru urte hasi zen harriak jasotzen eta entrenatzaile lanetan harrijasotzaile izandako Pedro Mari Egaña "Mintxeta" ari da. Javierrek 19 urte besterik ez ditu, eta kintopekoen Euskadiko txapeldun izan zen iaz eta bigarren mailako Euskadiko txapeldun ere bai. Markarik hoberena iazko Euskadiko txapelketan lortu zuen zilindro zaharrari 44 jasoaldi emanaz 5 minuturen buruan.



Harri kubikoarekin egindako jasoaldietariko bat.

Iazko errekorra hautsi zuten igandeko Duathloian

Pasa den igandean ospatu zen Duathloian III. edizioko garaile Borja Osés galdakaoarra izan zen, 1 h. 29m. eta 25 segundutako denborarekin. Sailkapeneko lehen zazpi korrikalariak iazko errekorra hautsi zuten, eguraldiak horretan lagundu ez arren.

Guztira 267 korrikalari izan ziren, horietatik 74 erretiratu eta 4 deskalifikatu egin zituztelarik, tar-

tean Moises Andonegi elgoibartarra.

Sailkapen orokorra:

- 1º Borja Osés (01:29:25)
- 2º Jon Astigarraga (01:29:45)
- 3º Iñigo Ortuzar (01:30:07)
- 4º Mario Lavin (01:30:15)
- 5º Jesus Larrañaga (01:30:38)

Gipuzkoako txapeldunak:

Gizonezkoetan, Jesus Larrañaga mendarotarra eta emakumezkoetan, Ainhoa Artolazabal tolosarra.

Elgoibartarren sailkapena:

1º Josu Artetxe	01:38:48	(46)
2º Iñaki Konde	01:41:14	(74)
3º Jose Ramon Ortuoste	01:41:36	(82)
4º J. Martin L. de Larrinzar	01:45:31	(120)
5º Ricardo Diego	01:51:14	(154)
6º J. Jose Etxeberria	01:53:41	(163)
7º Imanol Larrañaga	01:54:53	(168)
8º Iñigo Etxaniz	01:54:65	(169)
9º Alberto Agirreazaldegi	02:06:32	(189)
Moises Andonegi		deskalifikatua

Mendarotarren sailkapena:

1º Jesus Larrañaga	01:30:38	(5)
2º Aingeru Gallastegi	01:56:14	(172)

Iraegui
ERROTULAZIOA
☎ 74 39 52
San Antolin 74 37 06

IDO'S 
Edergintza
☎ 74 34 40
Eskubideen plaza 1 6


Oraiko kafetegia

BERISTAIN
EDARI BANATZAILEA
- Coca Cola
- Altxolako Ura
- Codorniu
- Lopez Ojeda ardoa
☎ 74 38 27



Zubiondo: Xakea eta jan-edanaren konbinazioa

Santa Klara auzoaren sarreran,

errepide bazterrean, dago Zubi-Ondo. Lehenago Atxa-orbea taberna izandakoan bi kuadrilek soziedadea sortzea erabaki zuten. Lokala alokatu eta horrela jarraitu dute gaurdaino. Elkartean sartu eta pareko ormaren zati bat hartzen duen egurrezko xake tablero handi batek argi erakusten du zein den beraien zaletasuna.

Tamainaz nahiko txikia da elkarte hau. Kanpoko terraza, barruko lokala beste dela esatea gehiegi esatea litzateke beharbada baina, egia esan, izugarritzko zerbitzua egiten die terrazak.

Orain arazo latz bati egin behar diote aurre. Zubi-Ondo elkarte dagoen etxea behera botako



1968. urteko xake bizidunak izugarritzko arrakasta izan zuen.

dute laster, etxebizitzak eraiki behar baitira bertan. Horregatik, biltzeko leku baten beharrean, lokala eskatu diote Udalari. Lokalaren arazoa da beraien ustez, xakean herriko figura on gehiago ez atera izatearena. Xakean jokatzeko funtsezkoa da etengabe jokatzeko jar-dutea eta, non jardun ez badago, ez da posible jokalaria onik ateratzerik. Dena den, urte mordotan pilatu duten kopa kopurua

ez da makala. Bitrina bete kopa dute, xake txapelketetan irabazitakoak.

Xakearen zaletasuna, elkarte sortu eta bost urte pasa ziren arte ez zen gauzatu. Orain nahiko bazter-tuta dagoen arren, aspalditik txapelketa soziala deitzen dena jokatzeko dute elkarteko artean. Herri mailako txapelketa ere ospatzen da, leku faltaren arazoagatik Santa Klarako Eskolaurtean jokatu behar izaten dena. Probintzia

mailako txapelketan Zubi-Ondoko xake taldeek parte hartzen dute. Orain hiru talde dira guztira, bat lehen kategorian, beste bat bigarrenaren eta, azkena, hirugarrenean.

Baina urteetan atzera eginez, 1968. urtean antolatatu zuten xake biziduna gogoratzen dute batez ere. Lan izugarria izan zen hura dena antolatzea. Baina zailena dirua biltzea izan omen zen. Elgoibarko ELORRA taldeak xake bizidunean hartu zuen parte eta ekitaldia NODO boletinean eman zuten.

Honez gain, sukaldeko lanetan ondo moldatzen dira eta honen adierazgarri da herriko sukalde txapelketan, bigarren atera izan dutela, behin, paellarekin, eta beste batean, makilauarekin. Honako honetan, untxia laban proposatu digute.

Untxia Laban

Osagaiak:

Kilo erdi untxi pertsona bakoitzarentzat, olio, berakatza, gatza, coñac-a

Nola egin:

Untxia lautuan zatitu. Bandeja batetan olio tanta bat bota eta untxia haren gainean jarri. Labea bero dagoenean untxia sartu eta 40 bat minutuz egiten eduki. Ia eginda dagoenean gatza eman eta coñac-a, olio eta berakatz txikituarekin aurrez egindako nahastea gainetik eman. Berrirori laban sartu eta berakatza gorritzen denean jateko prest egongo da.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1959

Presidentea:

Serafin Morgado

Urteko kuota: 10.000

Bazkide kopurua: 58

Berezitasuna: xakea

Helbidea:

Santa Klara 1

Mikel Hernandez

Askorentzat ezezaguna den idazle elgoibartarra

Mikel Hernandez Abaitua gasteiztarra da jaitzez eta elgoibartarra izatez. Egun Donostian bizi da eta bertako Institutu batean euskara eta literatura klaseak ematen ditu. 17 urte zituela aldegin zuen Elgoibartik eta herrian nahiko ezezaguna dela onartzen du. Momentuz hiru liburu argitaratu ditu: "Panpinen erreinua" (1983), "Ispiluak" (1985) eta "Etorriko haiz nirekin?" (1991). Laugarren bat eskuartearen darabilen bitartean, egunotan, "Ispiluak", bere bigarren liburua, berrargitaratu dute.

- Ba al dago idazteko leku edo herri aproposik?

- Elgoibar edo edozein herri oso aproposa izan daiteke idazle batentzat. Baina, egia esan, neri beti gustatu izan zaizkit gehiago leku handiak. Donostia ere igual txikiagi suertatzen zait. Dirua banu, seguraski Parisa joango nintzateke bizitzera. Paris, Londres, Praga... oso gustoko ditut.

Gasteizen jaio ondoren, urte bete nuela Bilbora joan ginen bizitzera. Lehen urte horiek oso inportanteak omen dira edozeinen bizitzan, nik hiri haundi batean egin nituen. Agian horregatik ditut orain horren gogoko leku haundiak.

- Nola definituko zenioke zure lana, zure libururik irakurri ez duenari?

- Eklektikotasuna izan liteke hitz aproposa. Zer da eklektikotasuna? Neri estilo asko gustatzen zaizkit. Baditut ipuin fantastikoak, errealistak, errealismo magikoa... Nobela, nere azken argitaralpena, errealista eta piska bat kostunbrista da.

- "Etorriko haiz nirekin?"

- Bai bukatzen dugunean edozer hartzera joan gaitzke... Bai, idatzi dudak gauzarik errealistena da. Nik asmatutako istorio baten inguruan, 1986an gertatutako zenbait gertaera kontatzen ditut. Hemen go egoera soziopolitikoak isladatzen duen istorio bat da.

- Irakaskuntzatik bizi den idazle asko dago. Zergatik?

- Bai? Hala da? Ba seguraski Irakaskuntzak



denbora libre asko uzten duelako da. Bazen idazle bat lanerako leku aproposena putetxe bat zela zioena. Egunez, nahiz gauez pake izugarria izaten zela esaten zuen. Haren iritziz putetxe bateko atezain izateak denbora libre asko uzten du.

- Posible balitz literatura-tik bizitzea?

- Ez da posible, baina aberatsa banintz ez nuke besterik egingo. Gustatzen zaizkidan tokietara joan, hizkuntzak ikasi... eta idatzi egingo nuke.

- Zer esango zenuke Euskal Herriko literatur panoramaz?

- Oso momentu onean gaudela, inoiz baino hobeto. Idazten duzuna argitaratu egiten da eta komunikabideak ere lehen baino

askoz gehiago arduratzen dira. Orain piskat gehiago saltzen da.

- Baina irrati eta telebistaren ondorioz inoiz baino gutxiago irakurtzen omen da...

- Ez dakit ba... Orain dela 20 urte oso gutxi irakurtzen zen. Estefaniaren nobelatxoak... Gogoratzen naiz Iñakiren kioskoan eta Jauregin erositako Estefaniak nola trukutzen genituen. Ez dakit noraino den hori literatura. Gogoratzen naiz baita orain Udala dagoen lekuan zegoen biblioteka munizipalaz. Han, "La vuelta al mundo en Doscaballos" izeneko liburua irakurtzen genuen. Ziur naiz bat baino gehiago gogoratuko dela liburu hartaz hau irakurtzean.

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar



1 Larunbata

**LANGILERIAREN
NAZIOARTEKO
EGUNA**

**9,00 AIAKO HAITZETARA
MENDI IRTEERA**

Antolatzailea: Morkaiko
Irteera tokia: Foruen Enparantza

**11,00 RALLY FARREGARRI-
RAKO BILERA**

Antolatzailea: Zuhaitz taldea
Tokia: Kultur Etxea

Z I N E A

"La bella y la bestia"

Walt Disney Pictures-ek pantaila-
ratutako ipuin klasiko honek gazte
eder eta lirain baten eta izaki
basati baten arteko istorioa kon-
tatzen du. XVIII. mendean Fran-
tziako herri txiki batetan bizi den
Belle, pizti basatiaren gaztelura
doa bere aita bertan giltzaperatu
baitu basatiak. Aitaren orde-
z Bellek bere burua eskaintzen du
eta piskanaka Belle, piztia sako-
nago ezagutzen joango da.

Z I N E A

17,00 FUTBOLA
Elgoibar-Zaragoza
Tokia: Lerun

19,30 ZINEA
"La bella y la bestia". 1992
Zuzendaria: Gary Trousdale eta
Kirk Wise
Abestiak: Howard Ashman eta
Alan Menken.

2 Igandea

11,00 FUTBOLA
Kadeteak: Elgoibar-Mutriku
Tokia: Lerun

16,30 ZINEA
"La bella y la bestia".

17,00 FUTBOLA
Jubenilak: Elgoibar-Sporting de
Herrera.
Tokia: Lerun

19,30 ZINEA
"La bella y la bestia"

3 Astelehena

9,30- 15,00 ZINEA
O.H.O.korentzat, "Adios, muchachos"
Tokia: Herriko antzokia
Antolatzailea: Irudi biziak

19,30 ZINEA
"La bella y la bestia"

**19,00-21,00 ERAKUSKETA:
ANTONIO BLANCOREN
ARGAZKIAK**

Gaia: Paisaiak zuri-beltzean
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Ongarri

18,00-21,00 ESMALTE IKASTAROA
Antolatzailea: Egur
Tokia: Aita Agirre Plaza
Ikastaro bukaera: maiatzak 31

6 Osteguna

19,00 HITZALDI-IKASTAROA
Gaia: Elgoibarko euskararen egoera
Tokia: Kultur Etxea
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

Erretailak



ZAILUR

**Teilatu
konponketak**

☎ 74 34 86
☎ 75 15 33



ALUVITEL^{SL}

ALUMINIO AROZTEGIA
ETA PVC

- Aluminiozko leihoak
2 koloretan
- "Rotura de puente
termico" leihoak
- Bainu manparak

Santa Ana 3 Tel: 74 36 34



ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA - F.M.87.7

**24 orduz
zuekin**

Arrate ☒ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73

I LEA P A I N D E G I A

FADEK
SOLARIUM

Enosario Kaka, 35 behe
☎ 74 26 92 Elgoibar

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 ra.

Magisteritza eta administrazio tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

C-15 Citroen furgoneta saltzen dut. Deitu ofizina orduetan. **Tel: 74 28 64**

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pza.
Alberto: 74 14 94

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Salerosketak

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

"Asolo Super-soft" (42zbk.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

18 belozidatedun mendiko bizikleta bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapias"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35

Kontaktuak

Tituludun irakasleak O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditu.
Alazne Tel.: 74 28 53

Txakurak eramateko erremolke bat erosiko nuke.
74 28 64 (Bulego orduetan)

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

1971. urtean jaio eta ikastolan ibili garenon AFARIA dago bihar, maiatzak 1 larunbata. Arratsaldeko **8,30etan** elkartuko gara **Txarridunan**. Afaria polikiroldegian izango da 10ak aldera.

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**


Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39



Aterpe
Taberna

Tel: 74 25 95



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)



Urtebetetze gonbiteak

- * Txokolatea eta pastelak



Arratsaldea pasatzeko

- * Karta joko eta berbetarako giro aparta

Aurrez enkargatu ezkeror, hobe!

Aldizkaria etxean jaso nahi baduzu. Deitu: 74 16 26

INTERIORES
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

SEAT IBIZA BERRIA



TEKNOLOGIA ALEMANA

**ZATOZ
BERRIKUNTZA
GUZTIAK
DESKUBRITZERA**

SEAT
Bai!

SEAT

Eibar Motor, S.A. Otaola hiribidea, 17 . Tel. 11 36 42 Eibar